

ZAINZA BEREZIKO ZERBITZUAK EMATEKO TASAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

8. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea honako zerbitzu hauek eman edo administrazio-jarduera hauek egitea da:

a) Ibilgailu handiak hirian barna gidatu, zaindu eta laguntzeko zerbitzua. Xede horretarako, garraio astuntzat jotzen dira arauzko masak, tamainak edo zoladuraren gaineko presioa gainditzeagatik Ibilgailuei buruzko Erregelamendu Orokorraren 14. artikulua aipatzen duen baimen berezia behar dutenak.

b) Hiriko zirkulazioa erregulatu eta kontrolatzeko jarduketa bereziak, ibilgailuen zirkulazioa errazte aldera, jarduera horiek Udaltzaingoak zirkulazioa seinaleztatu eta antolatzeke egin ohi dituenak ez badira. Halakotzat joko dira kirol-probak eta -ekitaldiak, haietan parte hartzeko izena eman behar bada, prezio baten truke, salbu irabazi-asmorik gabeko entitate batek antolatu eta jarduketa entitateak berezko dituen xedea eta helburuak betetzeko egiten bada, bai eta pelikulak filmatzea, dronen bidez hiriko espazioak grabatzea edo partikularrek sustatutako eta ikus-entzunezko jarduerak ere, eta antzeko beste jarduera batzuk edo esku-hartzea eskatzen duenari bereziki eragiten diotenak edo mesede egiten diotenak, zein hari buruzkoak.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Zergak ordaintzeko betebeharra tasaren xedea den zaintza berezirako baimena noiz eman eta une horretan bertan sortzen da.

Subjektu pasiboa

4. artikulua.- Tasa hau ordaintzeko betebeharrak solidarioa dute garraioa zein ibilgailuk egin eta haren jabeak diren pertsona natural edo juridikoek, edo zerbitzu hori eman dadin eskatzen dutenek.

5. artikulua.- Zaintza bereziko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak zerbitzuan egindako denbora eta erabilitako baliabideen arabera ezarriko dira, Ordenantza honen eranskinetako tarifekin bat.

Kudeaketa-arauak

6. artikulua.- Ordenantza honetan ezarritako tasak Herritarren Segurtasuneko Alorreko bulegoetan jarritako eskudirutako kutxan ordaintzen ahalko dira.

TARIFA-ERANSKINA

I.- TRAFIKOA ERREGULATZEKO JARDUERA BEREZIAK:	ordu edo zatiki bateko prezioa
– Esku hartu behar duen udaltzain bakoitzeko	32,35 euro
– Erabili beharreko patruila-auto bakoitzeko	4,10 euro
– Erabili beharreko moto bakoitzeko	3,60 euro

II.- GARRAIO HANDIAK ZAINTEKO ZERBITZUAK:	
- Ordu edo horren zatiki bakoitzeko	165,50 euro